

**Itsasondo, Arama eta Altzaga udalerriek osatzen duten udal elkarteko
Idazkaritza lanpostua bitarteko funtzionarioak betetzeko hautaketa-
prozesua**

(2025/01/27ko GAO, 16. zk.):

Bigarren postuan gelditu dena proposatzea lanpostua betetzeko.

Goian aipatu hautaketa-prozesuan lehen postuan gelditu den Amets Etxezarreta Balerdi hautagaiak ez duenez aurkeztu bederatzigarren oinarriaren 1. zenbakian jasotako dokumentazioa, Epaimahaiak zera erabaki du:

Bigarren postuan gelditu den Irati Jauregi Unanue hautagaia proposatzea lanpostua betetzeko, eta 3 egun balioduneko epea ematea hautaketa-prozesua arautzeko bederatzigarren oinarriaren 1. zenbakian jasotako dokumentazioa aurkezteko; eta ohartaraztea, ez badu dagokion dokumentazioa aurkezten edo uko egiten badio izendapen-proposamenari, bederatzigarren oinarriaren 2. zenbakian eta hamaikagarren oinarriaren 4. zenbakian aurreikusitako ondorioak izango dituela.

Dokumentazioa aurkezteko epea izango da: 2025eko ekainaren 5etik 9ra artekoa.

Epaimahaiko idazkaria

Sin.: Begoña Gorritxategi Osa